



## **Felipe Eiheragibel zendu da, Euzko Argentinazko Bazkun Alkartasunaren (FEVA) lehendakari ohia eta Argentinako EAJren lurraldez kanpoko erakundeko lehendakaria**

Eusko Jaurlaritzak, Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako zuzendariaren, Asier Vallejo, eta Euskadiren Argentina-Mercosurreko ordezkariaren bitartez, Sara Pagola, dolumin bizienak ematen dizkie Felipe Eiheragibelen senide eta lagunei, baita lehendakaria izan zen erakundeei ere, Rosarioko Zazpirak Bat Euskal Etxea, 1995 eta 2002 artean, Euzko Argentinazko Bazkun Alkartasuna (FEVA), 2008 eta 2009 artean, eta Argentinako Euzko Alderdi Jeltzalearen lurraldez kanpoko erakundea, 2010etik hona.

FEVAko lehendakaria izan baino lehen, 1998 eta 2008 artean erakundearen idazkaria izan zen eta, gaur egun, Ohorezko Epaimahaiaren ordezkari kidea zen. Eusko Jaurlaritzak Felipe bezalako lagunen konpromiso politikoa eskertzen du, euskal nortasun eta kultura hainbeste kilometrotara bizirik irautea lortzen dutenak. Honen erakusgarri dira 2002an Rosarioko Euskal Etxearen Memorian lehendakaria zenean jaso ziren bere hitzak: "beti bezala, gure lana Euzkadiren benetazko irudi atsegina helaraztea da".

Eskerrik asko, Felipe. Goian Bego.

---

## **Fallece Felipe Eiheragibel expresidente de la Federación de Entidades Vasco Argentinas (FEVA) y actual presidente de la organización extraterritorial del PNV en Argentina**

El Gobierno Vasco, a través del director para la Comunidad Vasca en el Exterior, Asier Vallejo, y de la delegada de Euskadi en Argentina-Mercosur, Sara Pagola, envía el más sentido pésame a la familia y los amigos de Felipe Eiheragibel, así como a las instituciones que ha presidido, el Centro Vasco Zazpirak Bat de Rosario, entre 1995 y 2002, la Federación de Entidades Vasco Argentinas (FEVA), entre 2008 y 2009, así como la organización extraterritorial del Partido Nacionalista Vasco en Argentina, desde 2010.

Antes de ser presidente de FEVA, desde 1998 a 2008 fue secretario de la organización y, actualmente, era miembro suplente del Tribunal de Honor. El Gobierno Vasco agradece el compromiso político de personas como Felipe, que hace que la identidad y la cultura vasca permanezcan vivas a tantos kilómetros de distancia. Como muestra, solo hay que recordar unas palabras tuyas recogidas en la memoria de 2002 del Centro Vasco de Rosario, cuando era presidente: "como siempre, nuestra labor es transmitir una imagen real y amable de Euzkadi".

Eskerrik asko, Felipe. Goian Bego.